

Espedientea Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraituz.

Esteribarren, 2014ko urtarrilaren 27an.—Alkatea, José Luis Larrainzar Eugui.

L1401199

FUNES

Funtzionarioaren izendapena

2013ko 194. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, urriaren 8an, argitara eman zen Funesko Udaleko "D" mailako funtzionarioendako murrizturiko deialdia. Hari jarraituz, Cristina Cerdán Gratacós administrari-ofizial izendatu da, C mailakoa, ondorio ekonomiko eta administratiiboak 2014ko otsailaren 1etik aitzina dituela, Alkatezatzak 2014ko urtarrilaren 28an eman ebazpenaren bidez.

Funesen, 2014ko urtarrilaren 28an.—Alkate udalburua, Isidro Velasco Estarriaga.

L1401286

HIRIBERRI

2014ko aurrekontua. Hasierako onespina

Hiriberriko Kontzejuak, 2013ko abenduaren 28an egin zen batzarrean, hasiera batean onetsi zuen 2014ko ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu bakarra, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 269 eta 276. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Espedientea jendaurrean egonen da hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, interesdunek aztertu eta bidezko juzgatzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

Inork erreklamaziorik aurkezten badu, Kontzejuko Batzarrak haiek ebazteko berariazko erabakia hartuko du, eta aurrekontua behin betiko onetsiko. Erreklamaziorik ez bada, behin betiko onetsizat joko da, arestian aipatutako jendaurreko epea bukatutakoan.

Hiriberrin, 2013ko abenduaren 28an.—Kontzejuko burua, Jose Luis Legarra.

L1401210

URRITZOLA

2014ko aurrekontua. Hasierako onespina

Urritzolako Kontzejuak, 2013ko abenduaren 24an egin zen bilkuran, hasiera batean onetsi zituen Urritzolako 2014ko ekitaldiko aurrekontu orokor eta bakarra, eta hura betearazteko oinarriak, legez eskatutako gehiengoarekin eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak eta indarra duen gainerako legediak ezarritako tramiteak betez.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 5/1995 Foru Legearen 202. artikuluan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276. artikuluan xedatuari jarraituz, espedientea hamabost egun baliodunean egongo da ikusgai, Udaletxearen eta Kontzejuaren iragarki oholetan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek edo interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Inork erreklamaziorik aurkezten badu, Kontzejuko Batzarrak haiek ebazteko berariazko erabakia hartuko du, eta aurrekontua behin betiko onetsiko. Erreklamaziorik ez bada, behin betiko onetsizat joko da, arestian aipatutako jendaurreko epea bukatutakoan.

Urritzolan, 2013ko abenduaren 24an.—Kontzejuko burua, Javier Co-rea.

L1401200

SAKANAKO MANKOMUNITATEA

2014rako tasa eta prezio publikoen ordenantzak. Behin betiko onespina

Mankomunitatearen Batzar Orokorrak, 2013ko azaroaren 14an egin bilkura berezian, erabaki zuen honako hauek hasiera batean onestea:

- a) Ordenantza fiskal orokorra.

b) Ordenantza fiskala, Etxeetako hondakinen eta gisakoen bilketa, tratamendua eta ustiapena edo deuseztatzea eta zerbitzu horrek eskaintzen dituen gainerako jarduerak egiteko tasak arautzen dituen, eta 2014rako tasen aldaketa.

c) Ordenantza fiskala, Arbizuko zabortegean industrietako hondakinak botatzeko prezio publikoak arautzen dituen.

d) Ordenantza fiskala, Agiriak eman eta tramitatzeko tasak arautzen dituen.

e) Ordenantza, Hezkuntza, kultura, kirol edo gizarte ikastaro eta jardueretarako inskripzio edo matrikuletako 2014rako prezio publikoak arautzen dituen.

f) Ordenantza fiskala, Ur horniduraren eta edateko urarekin zerikusia duten gainerako zerbitzu eta jardueren 2014rako tasak/prezio publikoak arautzen dituen.

Onespenaren erabakia 2013ko 9. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, azaroaren 25ean. Jendaurreko epean inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, ordenantzak behin betiko onetsi dira eta xedatu argitara daitezela, behar diren ondorioak izan ditzan.

Lakuntzan, 2013ko abenduaren 27an.—Sakanako Mankomunitateko burua, Aitor Karasatorre Muguruza.

ORDENANTZA FISKAL OROKORRA

Oinarria

Ordenantza hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak xedatzen duenari jarraituz ezarri da (1995eko 36. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, martxoaren 20koa).

I. KAPITULUA

Printzipio orokorrak

1. artikulua. Honako Ordenantza fiskal orokor honen xedea da Sakanako Mankomunitateko zerga araubidea osatzen duten ordainarazpen guztiendako arauak eta oinarri orokorrak finkatzea.

Ordenantza honen arauak ordenantza partikularren osagarritzat hartuko dira, azken horiek berariaz arautzen ez duten guztian.

2. artikulua. Tokian tokiko ordenantza fiskalek eta honako honek ere agintzen duten bezala, zergak ordaintzeko obligazioa guztiena da, eta zerga-eskubide eta betebeharrak izan ditzaketen pertsona fisiko eta juridiko guztiak edo nortasun juridikorik gabeko subjektuak hartzen ditu bere esparruan, betiere, berdintasun eta ahalmen ekonomikoaren oinarriak aintzat hartuz (2/1995 Foru Legearen 56.a. artikulua).

3. artikulua. Sakanako Mankomunitateak onetsitako ordenantza fiskalek Mankomunitatearen eskumeneko eremu osoan izanen dute indarra, eta ezin izanen da kargarik ezarri entitate zerga-ordainarazlearen lurraldetik kanpo egindako negozio, egintza edo gertaerengatik (2/1995 Foru Legearen 56.b artikulua).

4. artikulua. Mankomunitate honek ordainarazten dituen tributuen subjektu pasiboek behar bezalako frogabidez hornituriko kontsultak egiten ahal dizkiote Mankomunitateari, kasu bakoitzean dagokien tributuo arloko araubide, sailkapen edo kalifikazioari buruz.

Erantzunak informazio soilaren balioa izanen du eta ez egintza administratiiboarena, eta ez dio loturarik ezarriko Administrazioari.

Hala ere, bere kontsulta egin ondoren, organo eskudunaren erantzunak diodenaren arabera bere tributuo arloko eginbeharrak betetzen dituen subjektu pasiboak ez du erantzukizunik izanen, baldin eta 2/1995 Foru Legearen 63.3 artikuluan adierazten diren baldintzak betetzen badira.

Interesdunek ezin izanen dute inolako errekurtsorik aurkeztu kontsulta baten erantzunaren aurka, nahiz eta gero erantzun horretan oinarritutako egintza administratiiboaren aurka egitea zilegi izanen duten (2/1995 Foru Legearen 63.4 artikulua).

5. artikulua. Mankomunitate honek indarra duten ordenantza fiskalen kopia eman dizkiote, hala eskatzen duten guztiei, betiere emate horrengatik indarra duten tasak ordaindu ondoren.

Ordenantzek beraietan ezarritako epean izanen dute indarra. Eperik ezartzen ez bada, mugarik gabeko iraupena dutela ulertuko da (2/1995 Foru Legearen 14. artikulua).

II. KAPITULUA

Zerga harremanaren elementuak

Zergapeko egintza

6. artikulua. Zergapeko egintza izaera juridikoa edo ekonomikoa duen betebeharra da, ordainarazpen bakoitza finkatzeko behar den ordenan-

tzan zehaztutakoa, eta hura gauzatzeko zerga ordaintzeko betebeharrak sorrazten du.

Ordenantza fiskal partikular bakoitzean zehaztuko da zergapeko egintzaren izaera, zerga ordaindu beharra zein kasuan sortzen den adierazita.

7. artikulua. Ez da analogia onartuko zergapeko egintzaren edo salbuespen edo hobarien esparrua bere muga hertsietatik harata hedatzeko (2/1995 Foru Legearen 65. artikulua).

Subjektu pasiboa

8. artikulua.

a) Subjektu pasiboa pertsona fisiko edo juridikoa da, zeina, ordainarazpen bakoitzari buruzko ordenantza partikularraren arabera, zergak ordaintzera beharturik baitago, zergadun nahiz zergadunaren ordezkari gisa.

Zergaduna pertsona natural edo juridikoa da, zeinari ordainarazpen bakoitzaren ordenantzak (2/1995 Foru Legean xedatutakoa aplikatuz) zergapeko egintzari darion tributu-karga ezartzen baitio, bakarka edo beste batzuekin batera.

Zergadunaren ordezkia subjektu pasiboa da, zeina, ordenantzak edo legeak hala beharturik eta haren ordezkari, behartuta baitago zerga betebeharraren prestazio material eta formalak betetzera.

b) Subjektu pasibotzat hartuko dira, halaber, jaraunspen banatugabeak, ondasun komunitateak eta gainerako entitateak, nortasun juridikorik ez izanik ere, unitate ekonomiko bat edo ezarpena jar dakiokkeen bereizitako ondare bat osatzen badute.

Zerga harremanaren aldaezintasuna

9. artikulua. Subjektu pasiboaren eta zerga betebeharraren gainerako elementuak ezin dira partikularraren egintza edo hitzarmenaren eraginpean aldatu.

Egintza eta hitzarmen horiek ez dute eraginik izanen Administrazioaren aitzinean, berekin dakartzaten ondorio juridiko-pribatuak ukatu gabe.

Zerga-oinarria

10. artikulua. Zerga-oinarritzat hartuko da:

a) Zergapeko egintza ezarpen modulutzat kalifikatzea, tributu-zorra kopuru finkotan mugatzen denean.

b) Zergapeko egintzaren kopuru, pisu edo neurri unitateen multzoa. Unitate horien gainean ezarriko da tarifa egokia, tributu-zorra zehaztera iristeko.

c) Zergapeko egintzaren balorazioa diru unitatetan, administrazioak kontuan hartutakoa. Kopuru horri (indarra duen arautegiari jarraikiz behar diren murriztapenak egin ondoren, hala behar bada) tasa egokia aplikatuko zaio, tributu-zorra zehaztera iristeko.

Ordainarazpenak erroldatu, matrikulatu edo erregistratu egin behar-ko dira, baldin eta, beren ezaugarriak direla medio, zergapeko egintzak jarraitutasunez gertatzen badira.

Likidazio oinarria

11. artikulua. Likidazio oinarritzat hartuko da zerga-oinarrian eginiko murrizketen emaitza. Murrizketa horiek kasuan kasuko ordainarazpena arautzen duen legean edo ordenantzan ezarrita daude.

Karga-tasa

12. artikulua. Karga-tasatzat hartuko dira likidazio-oinarriari kuota zehazteko aplikatzen zaizkionak, izaeraz proportzionalak edo progresiboak izan daitezkeenak.

Kuotaren zehaztapena

13. artikulua. Kuota honela zehaztuko da:

a) Dagokion ordenantzan zerga-modulu gisa seinalatutako kopuru finkoaren arabera.

b) Zerga-oinarriaren gainean aplikaturiko tarifen, ordenantza partikularretan ezarrita dauden horien, arabera.

c) Zerga-oinarriaren balioari dagokion karga-tasa proportzional edo progresiboa aplikatuz.

d) Oro har, ekarpen berezietan, ordaintzera beharturik dauden guztientzat, interes partikularrari egotzen zaizkion obra eta instalazioen kostuaren ehunekoaren arabera, kuota osoa subjektu pasiboen artean nork

berea ordaintzeko banatuz, dagokion ordenantzan finkatutako moduluen arabera.

Salbuespenak eta hobariak

14. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean eta Nafarroako Foru Parlamentuak onetsiak dituen edo onesten dituen gainerako arau aplikagarrietan xedatzen denari lotuko zaio.

III. KAPITULUA

Tributu-zorra

15. artikulua. Tributu-zorra subjektu pasiboak administrazioari zordion diru kopurua da. Kopuru horretan tributu-kuota sartzen da eta, hala behar denean, ondoko kontzeptuak gehitzen zaizkio:

a) Oinarrien edo kuoten gainean legez galdatzen ahal diren erre-karguak.

b) Berandutzako korritua, legez ezarria.

c) Gerorapen edo luzapen erre-karguak.

d) Premiamenduko erre-kargua.

e) Diru bidezko zerga-zehapenak.

Tributu-zorra ordaintzeko erantzukizuna

16. artikulua.

1. Legeak tributu-zorren erantzule deklaratzeko ahal diti, subjektu pasibo edo zordun nagusiekin batera, beste pertsona batzuk solidario edo subsidiarioki.

2. Kontrakorik agintzen duen legeko arau espresik izan ezean, erantzukizuna beti subsidiarioa izanen da.

3. Erantzukizuna tributu-zor osoari dagokiona izanen da, zehapenak kenduta.

Premiamenduko erre-kargua bakarrik eskatzen ahal zaio erantzuleari, diru-sarrera egiteko borondatezko epea igarotzen bada ordainketa egin gabe.

17. artikulua. Betiere, tributu-zorra ordaintzera behartzeko administrazio-egintza erantzuleei bideratu ahal izateko, beharrezkoa da administrazio-egintza bat, zeinean, interesdunari entzunaldia eman ondoren, erantzukizuna deklaratu eta haren zenbaterainokoa zehaztuko baita.

Egintza hori jakinaraziko zaie, likidazioaren funtsezko osagaiak adieraziz, eta une horretatik zordun nagusiaren eskubide guztien jabe egingen dira.

18. artikulua. Administrazio-egintza erantzule subsidiarioei bideratu ahal izateko, nahitaezkoa da alde aurretik zordun nagusiaren eta gainerako erantzule solidarioen ordainezintasuna deklaratzeko, aitorten horren aurretik bidezko diren zuhurtasunezko neurriak hartzea galarazi gabe.

19. artikulua. Zor baten erantzule solidario edo subsidiarioak bi edo gehiago badira, zorra oso-osorik galdatzen ahalko zaie horietako edonori.

Tributu-zorren iraungipena

20. artikulua. Tributu-zorra honela iraungiko da:

a) Ordaindu edo bete delako.

b) Preskribatu delako.

c) Ordainezintasuna frogatuta dagoelako.

d) Konpentsatu delako.

21. artikulua. Tributu-zorren ordainketa ordenantza honen 54.etik 57.era bitarteko artikuluek (biak barne) arautzen dutenaren arabera egingen da.

22. artikulua. Lau urteren buruan ondoko eskubide eta ekintzak preskribituko dira:

a) Subjektu pasiboen alde:

–Tributu-zorra zehazteko administrazioak duen eskubidea, likidazio egokiaren bitartez, eta sorrazpena egin zen egunetik hasita.

–Likidatutako tributu-zorrek ordain daitezkeen galdatzeko ekintza, borondatezko ordainketako epea akitzen den egunetik hasita.

–Zergei buruzko arau-hausteengatik zehapenak jartzeko ekintzak, kasuko arau-hauste horiek egin ziren egunetik kontatuta.

b) Administrazioaren alde, jaso behar ez ziren sarrerak itzultzeko eskubidea, sarrera egin zen egunetik hasita.

23. artikulua. Aurreko artikuluen a) atalak aipatzen dituen preskripzio epeak eten egiten dira:

–Subjektu pasiboa formalki jakinaren gainean izanik, zergapeko egintza bakoitzagatik sortutako ordainarazpenaren aitortena, arautzea, ikuskaritza,

segurtasuna, egiaztapena, likidazioa eta diru-bilketa erdiesteko egindako edozein ekintza administratiboren eraginez.

–Edozein motatako erreklamazio edo errekurtsoen aurkezpenaren bidez, baldin eta, administrazioari berari egozten ahal zaion errua dela medio, administrazio horrek ebazpenik ematen ez badu hartarako ezarritako epearen barnean, preskripzio epea berriz ere hasiko da kontatzen aipatu epe hori iragandakotzat jotzen den unetik aurrera.

–Subjektu pasiboak tributu zorra ordaindu edo likidatzeko egiten duen edozein ekintzagatik.

Aurreko artikularen b) atalaren kasuan, preskripzio epearen etendura etorriko da diru-sarrera bidegabekoa atzera jasotzeko xedez subjektu pasiboak egiten duen edozein egintza ez emailerekin, edo hori hala izan dela aitortzeko administrazioak egiten duen edozein egintzaren bidez.

24. artikulua. Preskripzioa ofizios aplikatuko da, subjektu pasiboak eskatu edo salbuespen gisa alegatu behar izan gabe.

25. artikulua. Subjektu pasiboaren eta gainerako erantzuleen ordainezintasun egiaztatua dela bide ordaindu ezin izan diren tributu-zorrik behin-behinekoz iraungitatzat deklaratu dira, preskripzio epearen barnean birgaitzen ez diren bitartean. Epe horretan zorra birgaitzen ez bada, behin betiko iraungita geldituko da.

IV. KAPITULUA

Kudeaketa arauak

26. artikulua. Tributuaren kudeaketa honela hasiko da:

- Subjektu pasiboaren aitorten edo ekimenaren bidez.
- Ofizios.
- Toki entitateen organo administratiboen ikerketaren bidez.

Tributu aitortpena:

27. artikulua.

a) Tributu aitortpentzat hartuko da zergapeko egintza baten ingurua-barrak edo elementuak gertatu edo sortu direla adierazi edo aitortzen duen dokumentu oro. Halaber, aitorten balioa emanen zaio zergapeko egintza biltzen edo eratzen duen dokumentua aurkezte hutsari.

b) Inondik inora ere ez da eskatuko zerga aitortenak zinpean egin daitezken.

c) Aurkezteko garaian, aitortenaren hartu-agiria emanen zaie interesdunei; aitortenaren kopiak ere horretarako balioko du.

d) Froga agiria aurkeztean, interesdunek erantzen ahal diote kopia soil bat edo fotokopia bat, hain zuzen ere, administrazioak erkatu ondoren, jatorrizkoa itzul diezaien, non ez den erabakitzen ez dela itzuli behar prozedurari buruzko behin betiko ebazpena eman baino lehen, agiria pribatua izateagatik edo bidezkotzat jotzen den beste arrazoiaren batengatik.

28. artikulua. Aitortpena nahitaez aurkeztu beharko da ordenantza partikular bakoitzean zehaztutako epeetan, eta, oro har, zergapeko egintza gertatzen den egunaren ondoko hogeita hamar egun balioduneko epearen barnean. Epe horietan aurkezten ez bada, arau-hauste soiltzat hartuko da eta dagokion zehapena ezarriko zaio.

29. artikulua. Aitortpena toki entitate honetan aurkezteak ez du esan nahi zerga bidezkoa dela ontzat eman edo aitortzen dela.

Mankomunitate honek aitortenak eska ditzake eta hauek gehitzeko ere bai, eta orobat ikusi diren okerrak zuzentzeko, tributuaren likidaziorako eta egiaztapenerako beharrezko den neurrian.

Aurreko paragrafoak aipatzen dituen betebeharrak ez egitea arau-hauste soiltzat hartuko da eta horren arabera zehatuko.

Epeak

30. artikulua.

1. Ordenantza partikularretan adierazitako tributu kudeaketako izapideak egiteko bete beharreko epeak. Ordenantza horiek ez badituzte epeak finkatzen, oro har ulertuko da ez dela sei hilabete baino gehiago igaroko administrazio prozedura hasi eta hura bukatzen duen ebazpena eman arte; betiere, galarazten duten aparteko arrazoiak, behar bezala justifikatuak, ez badaude. Ikuskatze kasuan, epe hori bi urtekoa izanen da.

2. Toki entitate honek epeak betetzen ez baditu, ez da ondorioz administrazio ekintzaren iraungipena etorriko, baina interesdunek erreklamazioa aurkezteko baimena izanen dute.

3. Uneoro egiten ahal dira tramitazio akatsen kontrako erreklamazioak; bereziki, haien ondorioz prozedura gerarazi, jarritako epeak hautsi edo arazoa behin betikoz ebatzi aitzin konpon daitezkeen tramiteak egin ez direnean. Erreklamazioa baiesten bada, horretarako arrazoirik izanez gero, erantzukizuna duen funtzionarioaren kontrako diziplina espediente irekitzea ekarriko du.

Egiaztapena eta ikerketa

31. artikulua. Toki entitate honek ikertuko ditu zergapeko egintza osatzen edo baldintzatzen duten gertaera, egintza, egoera, jarduera, ustiapen eta gainerako inguruabarrak oro, eta egiaztatuko du karga-oinarriaren balorazioa.

32. artikulua. Ikerketa egiteko, subjektu pasiboaren kontabilitate nagusiko edo osagarriko dokumentuak, liburuak, fitxategiak, fakturak, frogagiriak eta idazpenak aztertuko dira, eta orobat ondasunak, elementuak, ustiapenak eta tributu zehazteko beharrezko diren beste aurrekari guztiak, informazioa ematen badute.

33. artikulua. Subjektu pasiboak beharturik daude kontabilitate liburuak, erregistroak eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako dokumentuak eraman eta kontserbatzera, bai eta ikuskatze lanetarako laguntza ematera ere, administrazioaren esku jarriz zergapeko egintzarekin zerikusia duten datu, txosten eta aurrekariak edo frogagiriak.

34. artikulua. Ikuskatze lanak subjektu pasiboentzat eragin ekonomikorik baldin badakar, eginbide, jakinarazpen eta aurretiko edo behin betiko akten bidez dokumentatuko dira.

Salaketa

35. artikulua.

1. Toki entitateen ikerketa salaketa bidez hasten ahal da. Salaketa erabiltzea Administrazioari laguntza emateko betebeharretik aparte dago, 2/1995 Foru Legearen 62. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Salatzailea ez da interesduntzat hartuko salaketaren ondorioz hasten den ikerketan, eta salatzailea den aldetik ez du eskubiderik izanen errekurtsio edo erreklamaziorik aurkezteko.

3. Nabarmenki funtsik gabeak diren salaketak bestelako tramiterik gabe artxibatzen ahal dira.

Tributuaren likidazioak

36. artikulua.

1. Zerga-oinarriak zehaztu ondoren, kudeaketak jarraituko du: likidazioa eginen da, tributu-zorra finkatzeko. Likidazioak behin-behinekoak edo behin betikoak izanen dira.

2. Behin betikotzat hartuko dira:

–Zergapeko egintzaren ikerketa administratiboa egin ondoren eta karga-oinarria egiaztatutakoan egindakoak, tartean behin-behineko likidaziorik izan edo ez.

–Preskripzio epearen barnean egiaztatu ez direnak.

3. Aurreko atalean adierazitako kasuetatik at, likidazioak behin-behinekoak izanen dira, kontuaren gainekoak, osagarriak, kauziokoak, partzialak edo osoak izan.

37. artikulua.

a) Likidazioak egiterakoan, toki entitate honek egiaztatuko ditu tributu aitortenetan adierazitako egintza eta balorazio guztiak.

b) Aitorten emaitzaren gaineko tributu-oinarria handitzen bada subjektu pasiboari jakinarazi behar zaio.

38. artikulua.

1. Likidazioak subjektu pasiboari jakinaraziko zaizkie, honako hauek adierazita:

a) Haien funtsezko elementuak.

b) Erabil daitezkeen inpugnazio bideak, bai eta zer epetan eta zein erakundetan paratu behar diren ere.

c) Tributu-zorra ordaindu behar den tokia, epea eta modua.

2. Jakinarazpen akastunak eragina izaten hasiko dira subjektu pasiboak jakinarazi zaiola espresuki onartzen duenean, dagokion errekurtsioa aurkezten duenean edo tributu-zorraren ordainketa egiten duenean.

3. Subjektu pasiboari zuzenean egindako jakinarazpenek sei hilabeteren buruan izanen dute eragina, baldin eta egintzaren testu osoa izanik, beste edozein baldintza aipatu ez badute, salbu eta epe horretan behar bezalako protesta egin bada, Administrazioak akatsa zuzen dezan eskatzeko.

Zergadunen zentsuak

39. artikulua. Ordenantza partikularrean berean hala zehazten den kasuetan, administrazioak zergadunen zentsuak prestatuko ditu, interesdunen aitortenak ikusirik, ezagutzen dituen datuen arabera eta, orobat, administrazio ikuskapenak emandakoak gehituz. Zergadunen zentsua, horrela prestatu eta gero, erregistro iraunkor eta publikotzat hartuko da, eta erabiliko da Mankomunitateak paratzen duen edonolako prozedura bidez, mekanikoa ere barne dela.

40. artikulua.

1. Zergadunen zentsua eratu ondoan, bertan gertatzen diren alta, baja eta aldaketa guztiak onesteko, egin beharko da erreklama daitekeen administrazio egintza bat, eta aldaketak subjektu pasiboek jakinarazi beharko zaizkie legeak agindu bezala.

2. Zentsuan gerora zernahi alta, baja edo aldaketarik sor dezakeen mudantzaren berri eman beharko dio zergadunak Administrazioari, hura gertatu eta hogeita hamar egun balioduneko epean.

41. artikulua. Zergadunen zentsuek zerga gaietarako agiri balioa izanen dute, haiek erabiliko baitira zerrenda, ordainagiri eta kobrantzako bestelako agirietan, kasuan kasuko ordainarazpena gauzatzeko.

V. KAPITULUA

Diru-bilketa

Printzipio orokorrak

42. artikulua. Diru-bilketaren kudeaketa da toki entitatearen Ogasunaren ondasunak osatzen dituzten kreditu eta eskubideak gauzatzera bideratutako eginkizun administratiboa betetzea.

43. artikulua.

1. Diru-bilketa egin daiteke:

– Borondatezko aldian.

– Derrigorrezko aldian.

2. Borondatezko aldian ordaintzera behartuta daudenek horretarako adierazitako epean barrenean kitatuko dituzte beren zorrak. Derrigorrezko ordaintzaren aldian, indarra duen legeriari atxikiz, zerga ordaindu behar duenak borondatezko aldian bere eginbeharra betetzen ez badu, diru-bilketa nahitaez eginen da ondarearen gaineko premiamendu bidez.

44. artikulua. Mankomunitatearen baliabideen bilketa zuzenean eginen da, Diruzaintzaren bidez, halako moduan non kontu-hartzaileak zerbitzuen fiskalizazioa betetzen ahalko baitu.

45. artikulua. Tributu-zorren sailkapena, diru-bilketari begira.

1. Zuzendaritza organoek eginiko likidazioen ondorioz sortutako tributu-zorrak, diru-bilketari dagokionean, honela sailkatuko dira: jakinarazi beharrekoak, jakinarazpenik gabekoak eta norberak likidatuak.

2. Jakinarazi beharrekoetan ezinbestekoa da jakinarazpena igortzea, subjektu pasiboak tributu-zorren berri izan dezan. Hortaz, legearen arabera jakinarazpenik gabe, zorra ezin izanen da eskatu.

3. Jakinarazpenik gabeko zorrak dira banakako jakinarazpenik behar ez dutenak, zuzenean subjektu pasiboek ezagututako zergadun zentsuetatik etortzeagatik, tributu-zorra aldiro aldatzen bada ere, dagokion ordenantzan aurretiaz zehaztutako errekaru edo tasa igoeren aplikazioagatik.

Ordaintza tokia:

46. artikulua. Toki entitate honen aldeko zorrak bankuko kontuetan edo aurrezkioketan ordainduko dira edo, bera titular dela, bankuetan horretarako irekitako kontuetan.

Ordaintza epeak

47. artikulua. Tributu-zorrak honela ordainduko dira:

a) Jakinarazi beharrekoak, hogeita hamar egun balioduneko epearen barrenean, jakinarazpenetik hasita.

b) Ordainagiri bitartez aldi-aldi ordaintzen direla-eta banakako jakinarazpenik behar ez duten tributu-zorrak, aurreko letran ezarritako epean, zein hilabete naturalan ordaindu behar diren, haren lehen egunetik hasita.

c) Subjektu pasiboak berak zuzenean likidatzen dituen zorrak aitorpena aurkeztean ordainduko dira. Aitorpenak aurkezteko egunak edo epeak tributu bakoitza arautzen duen ordenantzan zehaztutako dira eta, halakorik ezean, zergapeko egintza gauzatzeko den egunetik kontatzen hasi eta hurrengo hogeita hamar egun baliodunen barrenean.

Ordaintzeko modua

48. artikulua. 1. Tributu-zorrak eskudirutan ordaindu behar dira honako bitarteko hauetako bat erabiliz:

a) Indarra duen dirua.

b) Posta edo telegrafia bidezko igorpena.

c) Banku txekia.

d) Kreditu eta aurrezki entitateetan toki entitateak horretarako irekitako kontuetan, transferentzia edo ordaintza gutunaren bidez.

2. Aitzineko atalean erranagatik ere, zilegi da tributu-zorrak kreditu eta aurrezki entitateetan helbideratzea; horrela, azken hauek subjektu pasiboaren administratzaile lana egiten dute, hark baimendutako zorrak ordainduz. Helbideratze horretarako betebeharrak dira toki entitateko

diruzaintzari eta aurrekontu eta kreditu entitateari alde aurretik idatziz jakinaraztea helbideratze hori zein zerga kontzeptutarako den.

Gerorapenak eta zatikako ordaintzak

49. artikulua.

1. Tributu-zorra likidatzean, toki entitateak ordaintza geroratu edo zatika ordaintzeko aukera eman dezake, zergadunek hala eskatzen badute.

2. Tributu-zorren gerorapen edo zatikako ordaintzari buruzko gorabehera guztiak martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 90.etik 92.era bitarteko artikuluek, biak barne, xedatzen dutenari lotuko zaizkio.

VI. KAPITULUA

Errekurtsoak

50. artikulua. Ordenantzen behin betiko onespeneraren kontra, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik hasita, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean, entitatearen ebazpenen aurka egiteko, oro har, aipatzen diren errekurtsioak aurkezten ahal dira.

51. artikulua. Aurreko artikuluan ezarritakoagatik ere, indarrean egonen da beti interesdunen eskubidea errekurtsioa aurkezteko Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legean edo ordenantzetan ezarritakoa hausten duten ordainarazpenen gaineko xedapenak aplikatzen dituzten entitatearen erabakien kontra, entitatearen ebazpenen kontrako errekurtsioak aurkezteko ezarrita dagoen prozedura orokorrari jarraikiz.

52. artikulua. Zergak ordaintzeko obligazioaren edo ordainarazpen bat dela-eta likidatutako kuota baten zenbatekoaren aurka errekurtsioaren bat aurkezteko, galdatutako kopurua aitzinetik ordaintzerik ez da eskatuko, baina erreklamazioak ez du inolaz ere zor hori kobratzeko administrazioak egiten duena oztopatuko, interesdunak ez badu entitatearen diruzaintzan uzten likidazioaren zenbatekoa, gehi %25, sor daitezkeen errekaru, kostu edo gastuak bermatu ahal izateko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.–Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera behin betiko onetsitakoan, ordenantza fiskal honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko guztiak izanen ditu, Nafarroako Aldizkari Ofizialean testua oso-osorik argitara emandakoan.

Bigarrena.–Ordenantza fiskal orokor hau eta toki entitate honek onesten dituen ordenantza partikularrik aldatzeko, onespenerako egin diren izapide berberak egiten dira, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen IX. tituluko hirugarren ataleko lehen kapituluaren xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.–Ordenantza honetan aurreikusten ez den orotan aplikagarri izanen dira Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta entitatearen erabakiak baino gorago xedapen guztiak, araututako arloei aplikatzeko modukoak diren heinean.

ORDENANTZA FISKALA, ETXEETAKO HONDAKINEN ETA GISAKOEN BILKETA, TRATAMENDUA ETA USTIAPENA EDO DEUSEZTATZEA ETA ZERBITZU HORREK ESKAINTZEN DITUEN GAINERAKO JARDUERAK EGITEKO 2014KO TASAK ARAUTZEN DITUENA

I. KAPITULUA

Oinarria

1. artikulua. Ordenantza fiskal hau Nafarroako toki entitateei aplikagarri zaien araudi fiskalak ematen dizkien ahalmenen babesean eta beraiekin bat ezarri da.

II. KAPITULUA

Ordainarazpenaren izaera

2. artikulua. Ordenantza honen xedea tasak ezartzea da, etxeetako hondakinak eta gisakoak bildu, tratatu, aprobetxatu edo desegiteko zerbitzua egiteagatik eta horrekin zerikusia duten gainerako jarduerengatik.

Ezarri diren ordainarazpenen izaera fiskala, hortaz, martxoaren 10eko Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legearen 100. artikuluko aipatzen dituen zerbitzuak egiteko tasena da.

III. KAPITULUA

Aplikazio eremua

3. artikulua. Ordenantza hau Mankomunitatea osatzen duten udal mugape osoetan aplikatuko da, baldin eta zerbitzu hori benetan ematen bada.

Aldiz, Mankomunitatekoak ez izan arren, halako entitate edo pertsona batzuek tasa hauen bidez finantzatzaren zerebitzuak hartzen badituzte haiei ere aplikatuko zaie ordenantza hau.

IV. KAPITULUA

Zergapeko egintza

4. artikulua. Ordenantza honen xedeko zerbitzu edo jarduerak eskura izateak edo/eta erabiltzeak dakar zergapeko egintza. Zerbitzu eta jarduera horiek ondotik aipatzen dira eta beren tasak sortzen dituzte:

1. Etxeetako hondakinak eta gisakoak bildu, eta garraiatzeko nahitaezko zerbitzua eskura izan edo/eta erabiltzea, Hondakinei buruzko Legeari jarraituz, kasu hauetan:

- Etxekoak.
- Zerbitzuak.
- Merkataritzakoak eta industriakoak.
- Bulego publikoak.
- Ikastetxeak.
- Osasun zentroak.
- Zahar etxeetakoak.
- HHSak biltzeko edukiontzia izatea.

Tarifa bakoitzean sartutako jardueren zerrenda ez da zehatza, eta beraz, espresuki aipatu gabeko beste jarduera berdintsuak sartzen dira, antzekoak badira.

2. Borondatezko zerbitzu hauek ematea:

- Ohiko nahitaezko zerbitzutik kanpoko bilketa zerbitzu berezia.

V. KAPITULUA

Subjektu pasiboa

5. artikulua.

1. Ordenantza honetan ezartzen diren tasak ordaintzera beharturik dauden subjektu pasibotzat hartuko dira, zordunak diren aldetik, pertsona fisiko zein juridikoak, jaraunspen banatugabeak, ondasun komunitateak eta, lege nortasunik ez izanik ere, unitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen duten eta zerga ezar dakiekeen bestelako erakundeak, baldin eta edozein titulu dela bide, etxebizitzak, egoitzak, saltokiak eta dendak okupatzen, erabiltzen edo baliatzen edo ustiatzen badituzte edo bertan bizi badira, haien alde nahitaezko zerbitzu orokorra ezarri gero.

Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legearen 104.2 a) artikulua arabera, zorduna ordeztzen duten subjektu pasiboak dira Udal bakoitzeko Katastroko Erregistroan edo eraikin horien Hirilurreko Ondasunen gaineko Erregistro Fiskalean jabe gisa agertzen direnak Tasa ordeztzen dutenei igorriko zaie eta horiek, kasuan kasuko onuradunei erasaten ahaliko diete.

2. Borondatezko zerbitzua denez, pertsona edo erakunde eskatzaileak edo hondakinen titularrak dira zergak ordaintzera behartuta dauden subjektu pasiboak.

Kontzeptu batengatik edo bestearengatik titulartasunean edo erabileran ondorengoak direnei eskatzen ahal zaie pertsona fisikoek zein juridikoek egindako ustiapenen edo ekonomia jardueren ondoriozko zorra.

Ordaintzeko borondatezko epea akituta, eskuratzaila eta eskualdatzailea zorraren erantzule solidarioak izanen dira.

Norbaitek ustiatze edo jarduera ekonomiko baten titulartasuna eskuratu nahi badu, gaurko titularrak alde aurretik baietza emandakoan, eskubidea izanen du Mankomunitateari eskatzeko kasuan kasuko jardueran edo ustiatzearen aritzearen ondorioz diren tributu-zorren ziurtagiri zehatza.

VI. KAPITULUA

Zerga-oinarria

6. artikulua.

1. 4. artikuluko 1. ataletan ezarritako zergapeko egintzetarako, honako hau da tarifa aplikatzeko zerga-oinarria:

–1-A zergapeko egintzetarako: Bizitegia den edo izan litekeen katastro unitatea. Bizitegitzat hartuko da, hasiera batean, katastroko edozein unitate, salbu eta Udalak ziurtatzen badu auri egoeran dagoela.

Etxebizitza bat jarduera ekonomikoen gaineko zergari lotutako jardueraren baten kokalekua bada, tasarik handiena aplikatuko da:

–1-B, 1-C, 1-D, 1-E, 1-F eta 1-G zergapeko egintzetarako: establezimenduunitatea edo jarduera, jarduera ekonomikoen gaineko zergan (JEZ) inskribaturik badago, betiere lokal batean gauzatzen bada, edo funtzionatzen ari bada, egon gabe ere zerga horren menean. Establezimendu unitatea dagoela ulertuko da katastroko unitatea dagoenean.

–4.1.2.a) artikuluko zergapeko egintzetarako, emandako zerbitzuaren kostua.

–1-H zergapeko egintzetarako, edukiontzien kopurua, haien edukiera eta bilketaren maiztasuna.

2. Establezimendu bera JEZaren bi epigrafe edo gehiagotan inskribaturik badago, zenbatekorik handiena duen tarifa aplikatuko da.

VII. KAPITULUA

Tarifak

7. artikulua. Tributu-kuota kalkulatzeko, ekitaldi bakoitzean organo eskudunak ezarriko ditu tasa bakoitzaren zerga-oinarriari aplikatu dakizkiokeen tasa eta tarifak, eta ordenantza honen eranskinean agertuko dira, haren parte direlarik.

VIII. KAPITULUA

Tributu-kuota

8. artikulua. Zerga-oinarriari dagokion tasa edo tarifa eta indize zuzentzailea aplikatu eta kuotaren zati finkoa –erabilerari bakoitzari dagokionagehitzetik ateratzen den emaitza da tasa bakoitzaren tributu-kuota.

Ateratzen den kuotak, guztira, ezin izanen ditu eranskinean adierazitako gehieneko zenbatekoak gainditu.

9. artikulua. Ateratzen den tributu-kuotaren gainean aplikatuko dira legeek aldi bakoitzean finkatzen dituzten zeharkako zergak, legeek ezarritako moduan eta baldintzetan.

IX. KAPITULUA

Salbuespenak

10. artikulua. Nafarroako Parlamentuak onetsitako foru legeetan espresuki aipatzen direnak izanen dira onartuko diren albuespen eta hoberi bakarrik.

X. KAPITULUA

Hoberiak

11. artikulua.

1. Kuota berezia, Gizarte Segurantzak edo Nafarroako Mendekotasun Agentziak ordaindutako prestazioen onuradunendako.

Etxeko tarifak sortutako tributu-kuota %100eko hoberia izateko eskubidea izanen da, ordaintzera beharturik dagoena Gizarte Segurantzaren edo Nafarroako Mendekotasun Agentziaren prestazio baten onuraduna denean, haren zenbatekoa 8.838,43 euro/urtea baino gehiago ez bada edo 1,35 aldiz zenbateko hori, ezkontidea edo bizikidea izanez gero, bien diru-sarrerak batuta. Ezkontidea ez den beste ezin familia-zamarik izanez gero (adin txikiko seme-alabarik, 23 urte arteko eta adin horretako seme-alabarik ikasketa egiten ari edo legezko langabetu egoeran, edo seme-alaba ezindurik eta diru-sarrerarik gabeak), aipatutako diru-muga horiei mendeko lagun bakoitzagatik delako zenbateko hori 0,23 aldiz gehituko zaie.

Ezin izanen dute tarifa honetaz baliatu, aurreko baldintza beterik ere, urteko kopurua delako zenbateko hori bider 1,13 baino handiagoa batzen duten beste diru-sarrera gehigarriak jasotzen dituztenek, eskatzailearen eskutik zein etxebizitza berean bizi direnen eskutik. Orobat, eskatzailearen edo bizilagunen ondare higigarria nahiz higiezina ez da 21.000 euro baino handiagoa izanen, ohiko etxebizitzaren balioa kenduta.

Aipatu baldintzak betetzen dituztela erakusteko, eskatzaileek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Eskubidea.
- Hartzen den laguntzaren ziurtagiria.
- Errentaren edo ondarearen aitortpena, edo hura aurkeztera beharturik ez daudela dioten Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ziurtagiria, baita eskatzailearen edo bizilagunen diru-sarrerak frogatzen dituzten bestelako dokumentuak ere.
- Bizikidetzako ziurtagiria, udal errodakoa.

Hobari hori jaso dezakete errentamendu kontratu baten titularrek, aurreko baldintzak betez gero, betiere frogatzen badute errentamendu kontratuaren bidez etxebizitzaren titularrak haiei igortzen zaiela etxeari dagokion tasa.

Sakanako Mankomunitateak noiznahi ikuskatzen ahal du egoera berezi horretarako eskatzen diren baldintzak betetzen ote diren, eta kendu egiten ditu baldintzak betetzeari utzi dioten onuradunak, baita egiaztatzeko dokumentuak eskatu eta haiek aurkezten ez dituztenak ere.

2. Aurreko hobariaren eskubidea izateko, eskaera egin beharko zaio Mankomunitateari, baita aurreko atalean ezartzen diren beharrezko frogatu, organo eskudunek luzaturiko ziurtagiri eta txostenaren bidez.

3. %70eko hobaria hartzeko eskubidea dute hutsik dauden etxebizitzetako titularrek, urtero frogatzen badiote Mankomunitateari etxebizitza horietan ur eta argi zerbitzurik ez dutela. Egiaztapena eginen da zerbitzu horiek ematen dituzten enpresen edo entitateen ziurtagirien bidez.

4. %100eko hobaria izanen da etxea botatzeko lizentzia emana bada beste etxe bat egiteko eta etxe berri hori eraikitzen ari den bitartean. Gorabehera horren egiaztapena egin beharko da eraspeneren udal lizentziaren kopia bat aurkeztuta edo propio horretarako Udalak emaniko ziurtagiaren bidez.

5. Bidezkoa izanen da ondoriozko tarifaren %100eko hobaria, tasaren xedea den etxebizitza edo lokala zaborrontzitik 500 metro baino gehiagotara dagoenean. Hobari honetarako eskubidea sortzeko, ezinbesteko baldintza izanen da subjektu pasiboak aurretik hala eskatzea.

6. Salbuespen eta/edo hobari guztiak urte bakoitzeko lehen hiru hilekoan eskatu behar zaizkio Mankomunitateari, eta epe hori luzeazina izanen da.

Hobari urtebeteko iraupena izanen du eta urtero egin beharko dute eskubidea horretarako eskubidea dutela uste duten guztiek.

XI. KAPITULUA

Sorrarazpena

12. artikulua.

1. 4.1 artikuluan ezarritako tasak hiru hileko naturaleko lehenbiziko egunean sortuko dira, eta kuotak ezin izanen dira ez murriztu ezta hainbanatu ere.

2. Gainerako zerbitzuetarako tasak, borondatezkoak baitira, interesdunak zerbitzua egiteko eskatzen duen unean berean sorraziko dira.

XII. KAPITULUA

Ordainarazpena

13. artikulua. Ordenantza honetan araututako tasak hurrengo arauei jarraikiz ordainaraziko dira:

1. 4.1) artikuluan aurreikusitakoak hilabetearen edo hiru hilekoan behin.

2. Borondatezko zerbitzuengatik tasak sorrazten diren unean ordainaraziko dira.

XIII. KAPITULUA

Diru-bilketa

14. artikulua.

1. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legearen 86. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, 4.1 artikuluan ezarritako tasak aplikatetik sortzen diren tributu-zorrak "jakinarazpen gabekotzat" hartuko dira.

2. 4.1 artikuluan aurreikusitako tasek sortzen dituzten tributu-zorrak, 13. artikulua araberak ordainarazi eta gero, ordaindu behar diren lau hileko naturalaren lehenbiziko hilabetearen lehenbiziko egunean isilbidez jakinarazitaz hartuko dira. Egun horretatik aitzina, 30 egun baliodun izanen dira borondatezko aldiak ordaintzeko.

Aurreko lerroaldean aipatzen diren egunetan ordainarazpenen zerrendak prest ez badaude, Mankomunitatearen iragarki oholean argitaratzen diren egunetik aitzina hasiko da kontatzen borondatezko aldia.

3. Borondatezko zerbitzuetarako ezarritako tasak, jarduera edo zerbitzuaren eskaera egiten den unean ordainduko dira.

15. artikulua. 14. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz borondatezko epean ordaintzen ez diren tributu-zorrak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 84. artikuluan ezarritako moduan ordaindu beharko dira.

Mankomunitateak zorrak geroratu edo zatika ordaintzeko aukera eman dezake, martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 90. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraikiz.

16. artikulua. Tributu-zorren ordainketa honela egin ahal izanen da:

a) Ordainketak helbideratu dituzten subjektu pasiboek, horretarako adierazitako banku edo aurrezki kutxako kontuan kargatuz. Zorra ordaintzen ez bada zergadunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik, Mankomunitateak berak kobratzeko ahalmena ematen dien banku edo aurrezki kutxetan: ordainagiri hauetako bakoitzean tasaren zenbatekoa 3,61 euro gehituko da, kudeaketa gastuak berdintzeko.

b) Ordainketak helbideratu ez dituzten subjektu pasiboentzat, Mankomunitateak berak kobratzeko ahalmena ematen dien banku edo aurrezki kutxen bulegoetan.

XIV. KAPITULUA

Arau-hausteak eta zehapenak

17. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legearen arau-hauste eta zehapenen gainean ezarritako xedapenak aplikatuko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra.—Ordenantza honetako tasak likidatu, kudeatu, ikuskatu eta bilduko ditu zuzenean Sakanako Mankomunitateak.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ondorioak 2013ko bigarren hiru hilekotik aurrera izan ditzan, hobari bat ezarri da, tasaren %15ekoa, etxean konpostajea egiteagatik edo konpostaje komunitarioak Mankomunitateak ezarri dituen eremuetariko batean parte hartzeagatik beren etxeetako hondakinen zati organikoa bildu ez zaienendako.

Horretarako, Mankomunitateko zerbitzu teknikoek zentsu bat antolatuko dute, subjektu pasibo hauek eta egiten duten konpostaje mota identifikatzeko. Hasierako zentsua eginda, subjektu pasiboren batek etxeko konpostajearen edo konpostaje komunitarioaren parte hartu nahi badu, espresuki eskatu beharko dio Mankomunitateari, eta hobaria hurrengo ordainagiririk aurrera aplikatuko zaio.

Mankomunitateak bidezko iruditzen zaizkion kontrolak egiten ditu, onuradunek konpostajearen parte hartzen dutela egiaztatzeko, eta egiaztatzen bada ez dutela parte hartzen, hobaria deuseztatuko da, urteko lehen ordainagiririk aurrera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.—Orain arte ezarritako arau guztiak indarrak gabe gelditu dira, baldin eta maila berekoak edo txikiagoak badira eta ordenantza honetako xedapenei aurka egiten badiete, haiekin bat ez badatoz edo bateraezink badira.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra.—Ordenantza honek 2013ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

I. ERANSKINA

1) Etxebizitzak eta erretiratuaren elkarteak (etxeetakoak).

Tarifa finkoa: 66.39 euro.

2) Profesionalen bulegoetakoak.

Tarifa finkoa: 111.27 euro.

—Gestoriak.

—Agentziak.

—Kabineteak.

—Notariotzak.

—Erregistroak.

—Bitxi dendak, erloju dendak.

—Bankuak.

—Elkarte gastronomiko pribatuak (urtean 100 m³ bitarte ur kontsumitzen dutenak).

—Tabako-dendak eta ile-apaindegia.

—Irabazi asmorik gabeko kultur elkarteak eta erretirodunen elkarteak.

—Bestelako tarifetan sartuak ez dauden lanbide liberaletako lokalak.

—Ogi saltokiak.

- Norberaren produktuarendako hotz kamerak.
- Iturgintza eta elektrizitate arloko paratzaileak, pintoreak eta gainerako profesionalak, jendea hartzeko establezimendurik ez dutenak.
- Akademiak.
- 16) Landetxeak. 22.25 euro.
- Merkataritza.
- 3) Tarifa finkoa: 166.89 euro.
- Kioskoak eta liburu-dendak.
- Botikak.
- Opari dendak.
- Dolareak eta ardanegiak.
- Litxarrerria dendak.
- Gorputegiak.
- Kalez kaleko azokako postu finkoa eta horretarako biltegiak.
- Autoak konpondu eta garbitzeko tailerrak.
- Gasolindegia.
- Eskulangintzako lantegiak.
- Kristaldegia.
- Aroztegiak.
- Marmoldegia.
- Zur-lanak.
- Elektrizitate dendak.
- Edari biltegiak.
- Ogia eta horren eratorriak saltzeko denda.
- Gisako lokalak, merkataritzakoak zein industriakoak, beste tarifetan sartzen ez direnak.
- 4) Tarifa finkoa: 189.16 euro.
- Zapata dendak eta jantzi dendak.
- Burdindegia.
- Drogeriak.
- Ordezko piezen dendak.
- Pentsioak.
- Komentuak.
- Kontserba lantegiak.
- Mertzeriak.
- Moldiztegiak.
- Fruta eta barazki biltegiak.
- Etxetresna elektrikoak eta kiroletarako dendak.
- Altzari dendak.
- Janari dendak (barazkirik saltzen ez dutenak).
- Elikagai dendak (barazkirik saltzen ez dutenak).
- Harategiak.
- Prestalekurik gabeko gozotegiak.
- 5) Tarifa finkoa: 267.77 euro.
- Arrandegiak.
- Barazkiak saltzen dituzten elikagai dendak.
- Prestalekua duten gozotegiak.
- 6) Tarifa finkoa: 351.17 euro.
- Harakindegia, urdaitegia, barazki dendak edo arrandegia duten supermerkatu eta autozerbitzuak. (Bakar-bakarrik 150 metro koadro baino gehiago dutenak).
- 7) Tarifa finkoa: 319.49 euro.
- Jatetxeak, hostalak eta apopilo etxeak jatetxearekin.
- 8) Tarifa finkoa: 322.67 euro.
- Hotelak, kanpinak.
- 9) Tarifa finkoa: 276.96 euro.
- Ostatuak, kafetegiak, gizarte klubak, gastronomia elkarteak (urteko ur kontsumoa bada 100 metro kubikotik gorakoa), diskotekak, kirol elkarte ostatudunak, kasinoak.
- 11) Herriko etxeak, kontzeju etxeak, bulego publikoak, erakunde publikoak, liburutegiak, museoak, kultur etxeak, epaitegiak, elizak. Tarifa finkoa: 74.18 euro.
- Lokal hauetako batean jarduera bat baino gehiago egiten bada, bakar-bakarrik batengatik ordainduko da, hain zuzen ere tarifa altuena dena.
- 12) Ikastetxeak, haurtzeindegia. Tarifa finkoa: 159.50 euro.
- Jatetxea badute aurreko tarifa %35 garestitutiko da.
- 13) Ospitaleak, klinikak, ambulatorioak eta osasun etxeak (sanitarioak). Tarifa finkoa: 159.99 euro.
- 14) Egoitzak, kuartelak eta zahar etxeak. Tarifa finkoa: 311.56 euro.

h) Edukiontzia erabiltzailearen jabetzakoa bada, 602.15 euroko kuota izanen da edukiontzi bakoitzeko, horiek 800dik 1000 litro bitartekoak bada, eta 298.55 euroko kuota, 340 litroko edukiera badute edo txikiagoa. Edukiontzia Mankomunitateak lagata bada, 684.48 euroko kuota izanen da edukiontzi bakoitzeko, horiek 800dik 1000 litro bitartekoak bada, eta 344.09 euroko kuota, 340 litroko edukiera badute edo txikiagoa.

Baskulan emandako pisua: 5.51 euro pisaldi bakoitzeko.

Tarifei zuzenean aplikatzeko xedapenak.

-Hiri hondakinak sortzen dituen establezimendu-unitate bati -eta halakotzat hartuko da sartzeko ate bat bakarria duena- tarifa multzo bat baino gehiago badagozko, aplikatzen ahal zaizkion tarifetatik handiena baizik ez zaio aplikatuko.

-Ikuskatze lana eginik, ofizioz edo interesdunak eskaturik, tarifa aldatzen ahalko da, errealtatea nabarmen bestelakoa denean, egiaztatu den erabilera egiazkoaren arabera fakturatu dadin.

-B-C-E-F eta G tarifetan aurreikusi jardueretan, hondakinak batez bestekoa baino franko gehiago direnean -eta halakotzat hartuko dira modu eskusiboan edukiontzi bat edo gehiago erabiltzen bada-, erabilera eskusiboko edukiontziaren tarifari emanen zaio lehenasuna.

-Lau hilabetetik beheitiko "denboraldian" egiten diren jarduerak hiru hilekoko kuota bakar bat sortuko dute, jarduerari dagokion tarifa.

-Kalez kaleko azokako postu finkoak kasuan kasuko udalari ordainduko zaizkio zuzenean, bilketa berezia behar dutenean. Gehieneko kuota ez zaio aplikatuko erabilera eskusiboko edukiontziaren tarifari.

Hiri lurzoru finkatua ez da erabilera eskusiboko edukiontzirik emanen, ez bada eskatzaileak egunean 800 litrotik gorako hondakinak sortzen dituelako.

Harako 9. epigrafeko jarduerari, 300 biztanletik beheitiko udalerriri batean badaude eta soilik asteburu eta jaiegunetan irekitzen badira jendearentzat, tarifa tikierna aplikatuko zaie.

**ORDENANTZA, ARBIZUKO ZABORTEGIAN
INDUSTRIETAKO HONDAKINAK BOTATZEKO PREZIO
PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA**

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babespean ezarri da ordenantza hau.

Zergapeko egintza

2. artikulua. Zergapeko egintza da industrietako hondakin ez-arriskutsuak ematea, Arbizuko zabortegian trata ditzaten.

Salbuespenak

3. artikulua. Ez da salbuespenik egiten ordainarazpen honi dagokionez.

Subjektu pasiboak

4. artikulua. Prezio hauek ordaintzera behartuak egonen dira halako enpresak eta partikularrak, beren industrietako hondakin ez-arriskutsuak garraiatzen eta ematen dituztenak, zabortegian uzteko.

Nolanahi ere, botatze horiek egiteko behar den lizentzia edo baimena eskatuko zaie. Zergadun diren aldetik, ordainarazpen honen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak eta izaera juridikorik gabeko entitateak, unitate ekonomiko bat izan edo ondare berezia eduki eta industrietako hondakinak botatzeko zerbitzua eskatu dutenak edo hartaz baliatzen direnak.

Tarifak

5. artikulua. Zerbitzuaren tarifak honako kontzeptuengatik izanen dira:

-Industriakoa, hirikoaren parekoa bada, betiere gai organikorik gabekoa. Tonaren prezioa, 25.20 euro, gehi BEZa. Hondakin horiek kartodunak badira, 61.41 euro, gehi BEZa.

-Beira zuntza edo horrelatsukoak. Tonaren prezioa, 35.16 euro, gehi BEZa.

-Paletak: zur hutsezkoa bada, tonaren prezioa 77.40 eurokoa da, gehi BEZa; zurezkoak ez diren beste batzuekin nahasita badaude: 103.21 euro, gehi BEZa.

-Fundizioko hareak eta zepak. Tonaren prezioa, 23.74 euro, gehi BEZa.

- Pentsuak. Tonaren prezioa, 27.91 euro, gehi BEZa.
 - Pilak, horretarako propio diren edukiontzietan bota ez direnak, enpresatik heldu direnak: kilo bakoitzeko prezioa: 0,81 euro, gehi BEZa.
 - Obra hondakinak. Aurretik kudeatzaile batean tratamendua eman bazaie baizik ez dira onartuko eraikuntza eta eraispeneko hondakinak. Tonaren prezioa: 18.58 euro, gehi BEZa.
 - Landare-lurra edo gisa berekoak. Tonaren prezioa: 2,19 euro, gehi BEZa.
 - Landareetatik heldu diren hondakin organikoak, ezpurutasuna %15tik beherakoa badute. Tonaren prezioa: 10.62 euro, gehi BEZa.
 - Zelulosa organikoaren hondakinak edo horrelatsukoak. Tonaren prezioa: 26,49 euro.
 - Lohiak, botatzen ahal direnak. Tonaren prezioa: 25.80 euro, gehi BEZa.
 - Poliespana edo horrelatsukoak. Tonaren prezioa: 61.92 euro, gehi BEZa.
 - Tamaina handikoak (altzariak eta etxetresna elektrikoak). Tonaren prezioa: 351.75 euro, gehi BEZa.
 - Ibilgailu abandonatuak (turismoak, unitatea). Tonaren prezioa: 131.82 euro, gehi BEZa.
 - Ibilgailu abandonatuak (kamioiak eta horrelatsukoak, unitatea) 659.20 euro, gehi BEZa.
- Nolanahi ere, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:
- 1.–Osagai toxiko edo arriskutsuak dauzkan hondakinik ez da onartuko.
 - 2.–Likidoak edo lohiak ez dira onartuko, hezetasunaren ehunekoaren ondorioz araztegiko makinetan ezin badira erabili.
 - 3.–Kobratzeko kontuetarako ez da hondakintzat hartuko haren pisua 50 kilogramotik beheitikoa bada, partikularrenak badira obra hondakinak, eta 50 kilogramokoa, hondakinen gainerakoak, salbu eta pilak.
 - 4.–Hondakinak botatzen diren aldiro, 5.01 euro ordainduko da, gutxienez ere.

Likidatu beharreko kuota

6. artikulua. Likidatu beharreko kuota aurreko artikuluko tarifak aplikatuz ateratzen dena izanen da, aipatzen diren kontzeptuen arabera.

Sorrazpena

7. artikulua. Prezio publikoa sortzen da eta, beraz, ordaindu beharra, hondakinak eramaten direnean Arbizuko zabortegiko instalazioetara.

Kudeaketa arauak

8. artikulua. Industrietako hondakin ez-arriskutsuak tratatzeko edo botatzeko eramaten direnean, aldez aurretik beharko da Mankomunitatearen dagokion organoaren baimena.
- Baimen hori izan daiteke banakakoa botatze bakoitzeko edo, oro har, horretarako propio baimentzen den onarpen protokoloari jarraikiz.
- Mankomunitateak debekatu dezake, Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentuak emaniko Ingurumen Baimen Integratuan sartuak ez dauden hondakinak ekarri eta botatzea.

Diru-bilketa

9. artikulua.
 1. 5. artikuluan ezarritako ordainarazpenak hilean behin pagatuko dira.
 2. Horretarako, Mankomunitateak emanen du behar den faktura eta bertan adieraziko hileroko egin diren hondakin-emateak.
 3. Prezio publiko honen zorra premiamenduzko prozeduraren bidez eska daiteke, betiere Mankomunitatearen Ordenantza Fiskal Orokorrean ezarritako moduan.
 10. artikulua. Arau-hauste edo zehapenen gaineko inguruabarrei dagokienez, honako hauei jarraituko zaie: Ordenantza Fiskal Orokorra, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta bat datozen gainerako arauak. Hori guztia deusetan ukatu gabe arau-hausleek izan ditzaketen gainerako erantzukizun zibil eta penal guztiak, bereziki hondakin baimendu gabeak edo arriskutsuak ekarri dituztela ezkatzen badute.

Ordenantza honetan adierazitako betebeharrak ez betetzeagatik sortzen diren erantzukizunak eskatuko dira, ez bakarrik egindakoarengatik baizik eta izan daitezkeen beste erantzule batzuegatik, izan ere erantzukizun hori solidarioa izanen da ekarritako hondakinaren garraiolariaren eta haren sortzailearen artean, pertsona bera ez diren kasuetan betiere.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.–Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, toki entitate honek onetsitako Ordenantza Fiskal Orokorra eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aplikatuko dira.

Bigarrena.–Ordenantza honek indarra hartuko du haren behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean eta indarra izaten jarraituko du etengabe, aldatzeko edo indargabetzeko erabakia hartzen ez den bitartean.

ORDENANTZA FISKALA, AGIRIAK LUZATU ETA TRAMITATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

Xedapen orokorra

1. artikulua. Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 100. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza hau.

Zergapeko egintza:

2. artikulua. Alderdi batek eskaturik, entitate publikoak bere eskumeneko agiriak tramitatzeagatik sortzen den jarduerak eratzen du zergapeko egintza.

Ordaindu beharra:

3. artikulua. Ordaindu beharra sortzen da norberaren intereserako, entitate publikoak bere eskumenekoa den edo izan behar duen edozein agiri luzatzeko eskatze hutsarekin.

Subjektu pasiboa:

4. artikulua. Entitate publikoak luzatzen dituen edo bere eskumenekoak dituen agiriak eskatu, sorrarazi edo haien onura jasotzen duten pertsona natural nahiz juridikoak dira subjektu pasiboak.

Salbuespenak:

5. artikulua. Tasak ordaintzetik salbuetsiak daude, edozein entitate publikoan gizarte prestazioak eskatzeko edozein agiri tramitatzen duten erabiltzaileak.

Tarifak:

6. artikulua. Ordenantza honetako tarifak haren 1. eranskinean agertzen direnak dira, eta hona hemen kontzeptuak:

- Fotokopiak.
- Txartelak.
- Ziurtagiriak.
- Konpultsak.
- Ordainagiriaren eta beste batzuen kopiak.
- Kudeaketa eta diru-bilketa arauak.

7. artikulua.

1. Tasa sortuztat hartuko da agiria Mankomunitatearen Erregistro Orokorrean aurkezten denean, eta entitate honen bulegoetan ordenantza zapeko eskabiderik ez agiritik ez da hartuko, ezta tramitatuko ere, aldez aurretik ez bada ordainketa egin.

2. Zigilu ofizialaren itzulketa behar duen agiritik ez da emanen, agiria ematen duen langileak zeregin hori bete ez badu.

Aurrekariak bilatzeko eskaera orok tasa sorrazariko du, emaitza negatiboa bada ere.

8. artikulua. Entitate publikoaren dokumentu eta jakinarazpenen Sarrera eta Irteera Erregistro Orokorrean arduratu duten funtzionarioek emanen dituzten zigilu ofizialaren agiri guztiak zenbatuko dituzte, eta Diruzaintzan egunero diru-sarrerak eginen dituzte dagozkien likidazioekin.

Arau-hausteak eta zehapenak:

9. artikulua. Entitate publikoaren dokumentu eta jakinarazpenen Sarrera eta Irteera Erregistro Orokorrean arduratu dutenak eta Diruzaintzako langile arduradunak izanen dira iruzurraren erantzule. Iruzurra indarra duten xedapenetan ezarritako eran zigortuko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.–Ordenantza honetan aurreikusitako ez den orotan, ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarrena.—Ordenantza honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko osoak sortuko, testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoan.

I. ERANSKINA

Agiriak eman eta tramitatzea

- Fotokopiak (espedienteen tramitazioa): 0,10 euro.
- DIN A4 tamainako fotokopiak: 0,20 euro.
- DIN A3 tamainako fotokopiak: 0,30 euro.
- Txartelak: 3,01 euro.
- Ziurtagiri ofizialak: 3,01 euro.
- Konpultsak: 1,50 euro. 25 orri baino gehiago: 10 zentimo/beste orri bakoitzeko.
- Ohar soila, Jabetza Erregistrokoa: 13.03 euro.

ARAU, SAKANAKO MANKOMUNITATEAK HEZKUNTZA, KULTURA, KIROL EDO GIZARTE ARLOAN ANTOLATZEN DITUEN IKASTARO ETA JARDUERETAKO IZEN-EMATE EDO MATRIKULETAKO PREZIO PUBLIKOEN GAINEKOA

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatuari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikulua baimenaren babesean.

Kontzeptua

2. artikulua. Prezio publikoak galdutako dira, Mankomunitateak hezkuntza, kultura, kirol edo gizarte arloetan urtean antolatzen dituen ikastaro, ekitaldi edo jardueretan parte hartu edo horietara joateko eskubidea ematen duten matrikula edo gisako beste edozein kontzeptu dela eta, prezio publikoak aplikatzeko beste arauetan sartuta ez daudenean.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

3. artikulua. Prezio publikoaren zenbatekoa ordainduko da izen-ematea edo matrikula egitean.

Hala bada, prezio publikoa ordaintzera behartuak daude jardueraren onuradun diren guraso, tutore edo adingabeen legezko ordezkariak.

4. artikulua. Ikastaroa edo jarduera antolatzeko oinarriek kasu bakoitzerako ezarritako moduan eta tokian egiten da diru-bilketa.

5. artikulua. Prezioa ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, ikastaroa edo jarduera egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

Tarifak

6. artikulua. Arau honen eranskinean azaltzen diren tarifak aplikatuko dira, edo kasuan-kasuan ezartzen direnak, betiere garatu behar den jarduerari egokituak, eta, hala bada, Balio erantsiaren gaineko zergaren kuota ere eramanen dute.

TARIFEN ERANSKINA

- Igeriketa, minusbaliatuak: 50.10 euro.
- Futbol txapelketako taldea: 390.78 euro.
- Futbol txapelketako fidantza: 120.24 euro.
- Pala txapelketa, emakumeentzat (bikotea): 20.04 euro.
- Udako campuseko futbola: 35.07 euro.
- BTTko irteera, autobusa: 10.02 euro.
- Herri lasterketa:
 - Txip horia: 6.01 euro; txip zuria: 7.01 euro.
 - Azken 10 egunetan: 11.02 euro.
- Mendiko eskia: 16.03 euro.
- Aizkolari eskola: 55.11 euro.
- Xakea: 5.01 euro.
- Frontenis txapelketa, emakumeentzat (bikotea): 20.04 euro.
- Frontenis txapelketa, gizonentzat (bikotea): 40.08 euro.
- Triatlloi eskola (uda): 40.08 euro.
- Musikoterapia: 50.10 euro.
- Eskalada ikastaroa: 45.09.

Megafonia lagatzea: 30.06 euro (Mankomunitateko udalei izan ezik).

- Uretako sorosle ikastaroa: 450.90 euro.
- Eskolako igeriketa: 42.08 euro.
- Atletismo eskola emakumeentzat: 50.10 euro.
- Euskara.
- Udako kanpalekuak:
 - Pirata eta Xamariko: 162.32 euro.
 - Bertso: 186.37 euro
 - Sorgindua: 168.34 euro.

ORDENANTZA FISKALA, UR HORNIDURAREN ETA URAREN ZIKLO INTEGRALAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GAINERAKO ZERBITZU ETA JARDUEREN TASAK/PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

I. TITULUA

Sakanako Mankomunitatearen tasak/prezio publikoak, uraren ziklo integralarekin zerikusia dutenak

I. KAPITULUA

Oinarria

1. artikulua. Ordenantza fiskalaren titulu honetan ezartzen diren tasak/prezio publikoak Nafarroako toki entitateei aplikatu beharreko araudi fiskalak entitate horiei emandako ahalmenen babesean eta haiekin bat etorri ezarri dira.

II. KAPITULUA

Ordainarazpenaren izaera

2. artikulua. Titulu honen xedeko tasek/prezio publikoek edateko uraren hornidura zerbitzua eta aurrekoarekin zerikusia duten gainerako jarduera eta zerbitzuak ematea dute oinarri. Beraz, ezartzen diren ordainarazpenak, izaera fiskalaren ikuspegitik, tasak/prezio publikoak dira, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 100. artikuluan eta hurrengoetan aipatzen diren zerbitzuak eta jarduerak eman edo egiteari dagozkionak.

III. KAPITULUA

Aplikazio eremua

3. artikulua. Ordenantza hau Sakanako Mankomunitatea osatzen duten udal eta kontzejuen mugape osoan aplikatuko da, baita Mankomunitateko kide ez izan arren edateko ura jasotzen dutenetan ere.

Horren aplikazioa osoa edo partziala izan daiteke, betiere Mankomunitatean nola sartuta dagoen kontuan harturik eta benetan egiten diren nahiz egin daitezkeen zerbitzu emateen arabera.

IV. KAPITULUA

Zergapeko egintza

4. artikulua. Zergapeko egintza da ordenantza honek araututako zerbitzuak eskura izan edo eskuratu ahal izatea, nahiz jarduerak erabili edo erabili ahal izatea. Horiek behar diren tasak/prezio publikoak sortzen dituzte eta, banan-banan, ondoko hauek dira:

- a) Edateko uraz hornitzeko zerbitzuaren eskuragarritasuna eta mantentze lanak.
- b) Saneamendu eta estolderia zerbitzuaren eskuragarritasuna eta mantentze lanak.
- c) Edateko uraz hornitzeko zerbitzua erabiltzea. Tasa aldatzen ahaliko da uraren erabileraren edo helburuen arabera, eta tarifa konbinatuak ezarriko dira urari erabilerari desberdinak eman eta neurgailua bakarra denean.
- d) Hondakin uren egiazko edo balizko hustea eta, ondoren, haien arazketa. Tasa desberdina izaten daiteke, kontsumitutako uraren erabileren eta xedearen arabera.

Oro har, balizko hustea dagoela kasu guztietan ulertuko da.

Arau orokorraren salbuespentzat eta, beraz, tasa honetatik libre, honako hauek hartuko dira:

–Halako kasuak, non Sakanako Mankomunitatearen txosten tekniko baten bitartez zehazten den ezinezkoa dela epe laburrean saneamendu sarea egitea.

–Ezkatuko ur-ihesen bat badela atzematen bada. Kasu horretan, ondotik ematen diren inguruabar guztiak bete beharko dira, eta horiek behar bezala frogatu beharko.

1.–Ezkutuko ur-ihesa izan beharko du, subjektu pasiboak ez dakiela hodiak edo neurketako ekipok hondatuta daudela.

2.–Egiaztatu beharko da ez dela inolako utzikeriarik izan ur-ihesa eragin duten egintzetan, ez ur-ihesaren ondoko jarduketan.

e) Edateko uraren hornidura eta hondakin uren hustuketa behin betiko kontratazeko beharrezkoak diren jarduketan zerbitzu tekniko eta administratiboak ematea (lotune kuota), baita kontratuen titulartasunen aldaketa ere.

f) Edateko uraren hornidura edo/eta hondakin uren hustuketa sareetan hargunea izateko eskubideak.

g) Behin-behineko horniduretarako izen emateak.

h) Ikuskapena, Mankomunitateko langileek egiten dutena, arauak zehatz-mehatz betetzen diren ala ez egiaztatzeko, ordenantzetan araututakoa hausten den kasuetan.

i) Mankomunitateak behar diren prezioak ezarriko ditu edateko uraren hornidura sareetako harguneen lanak finantzatu ahal izateko, eta orobat kontagailuak prezintatu, egiaztatu, ezarri eta berritzeko, lan horiek Mankomunitateak berak egiten dituen.

V. KAPITULUA

Subjektu pasiboak

5.1 artikulua. Subjektu pasibotzat hartuko dira, ordenantza honetan ezarritako tasak/prezio publikoak ordaintzera behartuak, zergadun gisa, pertsona fisikoak edo juridikoak eta entitateak, nortasun juridikorik izan gabe ere zerga jasan dezakeen entitate ekonomiko bat edo ondare berezia osatzen dutenak, ordenantza honen xedeko zerbitzu eta jardueren onura, erreal edo ahalezkoa, edo haien eragina jasotzen badute.

Zehazki, ordaintzera beharturiko subjektu pasiboak honako hauek dira:

a) 4. artikuluko a), b), c), d), e) eta g) ataletan ezarritako tasetarako/prezio publikoetarako, hornidura kontratuaren titularrak.

b) 4. artikuluko f) ataletan zehaztutako tasarako, hargunearen eskatzailea izanen da subjektu pasiboa.

c) 4. artikuluko h) atalean zehaztutako tasetarako/prezio publikoetarako, araua hausten duten pertsona natural edo juridikoak, edateko uraren hornidura eta/edo hondakin uren hustuketarako kontratuaren titularrak.

Abonaturik ez dagoenean, ikuskatu diren lur, eraikin, establezimendu, zentro, egoitza eta gainerako higiezin jabeak izanen dira subjektu pasibo, betiere, zehapena ekarri duen jarduketaren onura jaso badute.

2. Zerbitzua zer finka edo eraikinetan egiten den, haiexen jabeak izanen dira zergadunaren ordeko. Zerbitzuaren onuradunak beste batzuk badira, jabeek haiexei kobratzen ahalko dizkiete kuotak.

3. Kontzeptu batengatik edo bestearengatik titulartasunean edo erabileran ondorengoak direnei eskatzen ahal zaie pertsona fisikoek zein juridikoek egindako ustiapenen edo ekonomia jardueren ondoriozko zorra.

Ordaintzeko borondatezko epea bukatuta, eskuratzailea eta eskualdatzailea zorraren erantzule solidarioak izanen dira. Norbaitek ustiategi edo jarduera ekonomiko baten titulartasuna eskuratu nahi badu, gaurko titularrak alde aurretik baietza emandakoan, eskubidea izanen du Mankomunitateari eskatzeko kasuan kasuko jardueran edo ustiatzean aritzearen ondorioz diren tributu-zorren ziurtagiri zehatza.

VI. KAPITULUA

Zerga-oinarria

6. artikulua. 4. artikuluko zerrendan aipatutako zergapeko egintzetan hauek dira bakoitzaren karga oinarriak:

a) 4. artikuluko a) atalean ezarritako zergapeko egintzarako: kuota finkoa kontagailuaren diametroaren arabera. Kuota horri Sakanako Mankomunitatearen kontagailuak mantentzeko kostua gehituko zaio, eta aipatu kostua kuotaren zati bereiztezina izanen da.

b) 4. artikuluko b) atalean ezarritako zergapeko egintzarako: kuota finkoa hornidurako kontagailuaren diametroaren arabera.

c) 4. artikuluko c) atalean ezarritako zergapeko egintzarako: ur kopuru kontsumitua, metro kubikotan, kontagailuaren bidez edo beste bide tekniko onargarri batzuen bitartez neurtuta.

d) 4. artikuluko d) atalean ezarritako zergapeko egintzarako: kontsumitutako metro kubikoen kopurua, bai edateko uraren sareko horniduratik bai ibai, putzu eta abarretako kontzesio pribatuetatik. Kontzesio pribatuei dagokienez, kontsumitutakoa emariarena bera dela hartuko da, kontrakoa nahikoa frogatu ezean.

Kontsumo zenbatetsien kasuan, zergadunak eska dezake aipatu kontsumoen gaineko zenbatespena egiteko, hain zuzen ere prozesuen galeren

arabera eta ur-galera zenbatetsien portzentajearen arabera, betiere zifra horiek kontsumitutako uraren %25a baino handiagoak badira.

Kontzeptu honengatik ez dute zerga ordaindu beharko propio urrezta-ketarako kontratatatu diren kontsumoek.

e) 4. artikuluko e) atalean ezarritako zergapeko egintzarako: kuota finkoa, ezarri beharrek kontagailuaren diametroaren arabera, edo ezarrita dagoenaren eta ezarriko denaren kuoten arteko aldea, diametroa, nahita edo teknikoki beharrezkoa delako, handitu behar bada. Kontagailua ezarri behar ez bada, kuota finkoa kontratuaren titulartasuna aldatzeagatik.

f) 4. artikuluko f) atalean ezarritako zergapeko egintzarako: hargunea eskatzen bada banakako jarduketetarako: kuota finkoa hargunearen diametroaren arabera.

Hargunea eskatzen bada suteen kontrako kontsumoetarako: kuota hargunearen diametroaren arabera.

g) 4. artikuluko g) atalean ezarritako zergapeko egintzarako, ur kopuru kontsumitua, metro kubikotan, kontagailuaren bidez edo beste bide tekniko onargarri batzuen bitartez neurtuta.

h) 4. artikuluko h) atalean ezarritako zergapeko egintzarako: egindako ikuskapenen kopurua.

VII. KAPITULUA

Tarifak

7. artikulua. Tributu-kuota kalkulatzeko, ekitaldi bakoitzean Sakanako Mankomunitatearen Batzar Orokorak ezarriko ditu tasa/prezio publiko bakoitzaren zerga-oinarriari aplika dakizkiokeen tarifak, eta ordenantza honen I. eranskinean agertuko dira, haren parte direlarik.

VIII. KAPITULUA

Tributu-kuotak

8. artikulua. Zerga-oinarriari bere tarifa aplikatuz ateratzen den emaitza da tasa bakoitzaren tributu-kuota.

9. artikulua. Ateratzen den tributu-kuotaren gainean aplikatuko dira legeek aldi bakoitzean finkatzen dituzten zeharkako zergak, legeek ezarritako moduan eta baldintzetan.

IX. KAPITULUA

Salbuespenak

10. artikulua. Nafarroako Parlamentuan onetsitako foru legeetan espresuki aurreikusirik dauden salbuespenak baizik ez dira onartuko, eta indarrak gabe gelditzen dira Nafarroako Gobernuak, Mankomunitatean sarturik dauden toki entitateek edo beste edozein entitate edo erakunde publikok hartutako erabaki edo egindako jarduketa orotik sortzen diren guztiak.

X. KAPITULUA

Sorrarazpena

11. artikulua. Ordenantza honek finkatzen dituen tasak/prezio publikoak honako arau hauei jarraikiz sorraraziko dira:

1. 4. artikuluko a) eta b) ataletan ezarritako tasak/prezio publikoak hiruhileko bakoitzaren lehenbiziko egunean sorraraziko dira, sarearekin lotura egina duten erabiltzaile guztientzat.

Zerbitzua lehen aldiz hartzen duten erabiltzaileentzat, tasa/prezio publikoek -horien barne izanik, hala bada, 6. artikuluan ezarritako neurragailuaren alokairua- hiruhileko natural horren lehenbiziko egunean izanen dute sorrarazpena; hortaz, ezin dira hiruhilekoa baino epe laburragoetan banatu.

2. 4. artikuluko c), d) eta g) ataletan ezarritako tasak/prezio publikoak ur kontsumoa egiten den nean sorraraziko dira.

3. 4. artikuluko e) atalean ezarritako tasak/prezio publikoak edateko uraren hornidura edo/eta hondakin urak husteko kontratua sinatzen den nean sorraraziko dira.

4. 4. artikuluko f) atalean ezarritako tasak/prezio publikoak, uraren ziklo integralari buruzko ordenantzarekin bat, edateko uraren hornidura sare orokorrari edo/eta hondakin urak hustekoari lotzeko baimena ematen den nean sorraraziko dira.

5. 4. artikuluko h) atalean ezarritako tasak/prezio publikoak, ordenantzaren arau-haustea eginez gero, baimendutako langileek ikuskapena edo egiaztapena egiten duten nean sorraraziko dira.

6. 4. artikuluko i) atalean aurreikusitako jarduerengatik kobratzen diren prezio publikoek sorrarazpena izanen dute haiek egiten diren nean berean.

XI. KAPITULUA

Ordainarazpena

12. artikulua. Ordenantza honetan araututako tasak/prezio publikoak hurrengo arauak jarraituz ordainaraziko dira:

1. 4. artikuluko a), b), c), d) eta g) ataletan aurreikusitako tasak/prezio publikoak, hiru hilabetetik behin ordainaraziko dira.
2. Aldiz, e) eta f) ataletan aurreikusitako tasak/prezio publikoak, sorrarazpenaren unean ordainaraziko dira.
3. Ordea, h) atalean aurreikusitako tasak/prezio publikoak, subjektu pasiboari jakinarazten zaizkionean ordainaraziko dira.
4. i) atalean aurreikusitako tasak/prezio publikoak sorrarazpenazpenaren unean ordainaraziko dira.

XII. KAPITULUA

Diru-bilketa

13. artikulua.

1.–Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 82. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoari jarraituz, ordenantza honetan ezarritako tasak/prezio publikoak aplikatzeagatik sortzen diren tributu-zorrrak "jakinarazpen gabekotzat" hartuko dira, 4. artikuluko h) eta i) ataletan ezarritakoak salbu.

2.–4. artikuluko a), b), c), d) eta g) ataletako tasek/prezio publikoek sorrarazitako tributu-zorrrak, behin ordainarazirik daudela 12. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, modu orokorrean jakinaraziko dira, behar den iragarkia edo ediktua Mankomunitateko iragarki oholean argitaratuz, eta argitalpen horretatik aitzina hogeita hamar egun balioduneko epea ezarri beharko da borondatez ordaintzeko, errekar gurik gabe.

3.–4. artikuluko e) atalean aurreikusitako tasak/prezio publikoak sorrarazpenaren unean berean ordaindu beharko dira, salbu eta 15. artikuluko a) ataleko ordaintzeko modua aukeratu bada, orduan 30 egun balioduneko epean ordaindu beharko baitira.

4.–4. artikuluko f) atalean aurreikusitako tasak/prezio publikoak hargunerako eskubidea ebatzi ondotik ordaindu beharko dira, uraren ziklo integrala arautzen duen ordenantzaren ezarri bezala, hogeita hamar egun balioduneko epearen barruan, ebazpena eman eta biharamunetik hasita.

5.–4. artikuluko h) atalean aurreikusitako tasak/prezio publikoak subjektu pasiboari jakinarazten zaizkionetik hasi eta hogeita hamar egun balioduneko epean ordaindu beharko dira.

14. artikulua. Aurreko artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, borondatezko epean ordaintzen ez diren tributu-zorrrak, luzapen aldian ordaintzen ahalko dira, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak ezartzen dituen errekar gurik.

Epe hori iragan eta zorrrak ordaindu ez badira, premiamendu-bideari ekinen zaio, Mankomunitateak haiek atzeratzeko edo zatika ordaintzeko baimenik eman ez bada.

15. artikulua. Tributu-zorren ordainketa honela egiten ahal da:

–Zorren ordainketa helbideratu duten subjektu pasiboentzat, haiek adierazitako banku entitatean eta kontuan kargatuz.

–Zorren ordainketa helbideratu ez duten subjektu pasiboentzat: Mankomunitatearen Diruzaintzan edo horretarako gaitutako banku bulegoetan.

II. TITULUA

Arau-haustea eta zehapenak

16. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legearen aurreikusitakoaz gain, Sakanako Mankomunitatearen uraren ziklo integralaren kudeaketa arautzen duen ordenantzaren arau-hausteei eta zehapen araubideari buruz ezarritako xedapenak aplikatuko dira.

III. TITULUA

17. artikulua. Saneamenduko kanona Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legearen eta hura garatzeko apirilaren 5eko 82/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsitako erregelamenduan arautua dago.

18. artikulua. Delako kanona 10/1988 Foru Legearen hirugarren xedapen iragankorarekin bat ezarri da eta haren zenbatekoa Nafarroako Aurrekontuei buruzko Foru Legearen finkatua dago, aurrekontuen ekitaldi bakoitzerako.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza honek indarra hartzen duenetik indarrik gabe geldituko dira, baliorik ez ondorioz ez dutela, hari kontra egiten dioten xedapen,

erregelamendu edo ordenantza guztiak, maila berekoak edo beheagokoak izan, barne izanik Uraren ziklo integralaren zerbitzukoak diren udaletako udal ordenantza guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honetan aurreikusten ez den orotan, ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legearen xedatutakoa aplikatuko da.

Ordenantza honek 2013ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

I. ERANSKINA

1. Kuota, hornidura zerbitzua erabilgarri edukitzeagatik eta mantentze-lanengatik. 4.a) artikuluan aurrekusiak.

Kuota finkoak, hargunearen diametroaren arabera:

KONTAGAILUAREN KALIBREA mm-tan	HIRUHILEKO KUOTA
13 mm arte	4,65 euro
15 mm	4,65 euro
20 mm	9,36 euro
25 mm	41,29 euro
30 mm	52,94 euro
40 mm	123,38 euro
50 mm	185,10 euro
65 mm	246,76 euro
80 mm	308,49 euro
100 mm	431,87 euro

Kontratazioak festetarako edo antzekoetarako egiten badira, tasa bakarra kobratuko da: 30,06 euro, ematen den ur harguneagatik. Aparteko erabilera hori ez da inoiz 15 egun baino gehiagotarako izan.

Kontagailuak mantentzeko kuota:

Hona kontagailuak mantentzeagatik aplikatu beharreko tasa:

KONTAGAILUAREN DIAMETROA mm-tan	HIRUHILEKO KUOTA
20 mm arte	2,40 euro
20 mm	3,01 euro
25 mm	4,15 euro
30 mm	4,59 euro
40 mm	5,95 euro
50 mm	12,15 euro
65 mm	12,21 euro
80 mm	12,90 euro
100 mm	14,51 euro

Suteetarako kuota finkoak: tasa bakarra kobratuko da: 19,33 euro/hiruhilekoa.

2. Kuota, saneamendu zerbitzua erabilgarri edukitzeagatik eta mantentze-lanengatik. 4.b) artikuluan aurrekusiak.

KONTAGAILUAREN KALIBREA mm-tan	LAUHILEKO KUOTA
13 mm arte	4,34 euro
15 mm	4,34 euro
20 mm	5,66 euro
25 mm	19,87 euro
30 mm	28,23 euro
40 mm	56,78 euro
50 mm	85,17 euro
65 mm	113,55 euro
80 mm	141,95 euro
100 mm	198,73 euro

3. Kontsumoa. 4.c) artikuluan aurrekusiak.

Kuota aldakorra: kontsumitutako metro kubikoaren prezioa.

1. tarifa. (62) Etxeko erabilera etxebizitzetan eta merkataritza jarduerarik ez duten etxabeetan, tarte hauen arabera:

–1. tarte: lehenbiziko 45 m³/hiruhilekoa; tarifa, 0,41 euro/m³.

–2. tarte: 46 m³/hiruhileko-tik 99 m³ arte; 0,59 euro/m³.

–3. tarte: 100 m³/hiruhileko-tik goiti, 1,69 euro/m³.

2. tarifa. (63) Industriako eta merkataritzako erabilerak. Tarifa honetan industria, merkataritza, bulegoak eta langelak, ostalaritza, gastronomia elkarteak eta ikastetxeak sartzen dira. Halaber, erabilera kolektiboko kirol instalazio pribatuak, salbu eta urreztatzea eta igerilekuak: 0,59 euro/m³.

3. tarifa. (64) Finka partikularretan ureztatzeko eta aisiarako izaten den erabilera, igerilekuak barne: 1,69 euro/m³.

4.1. tarifa. (69) Udal eta kontzejuek erabilera publikoko haien kirol instalazioetan eta ikastetxe publikoetan erabiltzeko kontratatutako hornidura: 0,33 euro/m³.

4.2. tarifa. (70) Udal eta kontzejuek iturri publikoetan, ureztaketetan eta apaindura publikoan erabiltzeko kontratatutako hornidura: 0,29 euro/m³.

4.3. tarifa. (71) Udal eta kontzejuek udaletxean, erabilera publikoko etxabeetan eta biltegietan, partikularrei edo beste erakundeei errentan hartu gabekoetan, erabiltzeko kontratatutako hornidura: 0,33 euro/m³.

5. tarifa. (72) Aldi baterako hornidurak. Obretarako hornidurak eta aldi baterako kontratatzen diren beste hornidurak: 0,83 euro/m³.

6. tarifa. (73) Goi hornidura, Mankomunitatekoak ez diren entitate edo kontsumitzaileei: 0,34 euro/m³.

7. tarifa. (74) Zisterna-kamioien hornidura: 1,68 euro/m³.

8. tarifa. Kontzeptu honi dagokionez abonatuaren erreklamazioari kasu eginen zaio, baldin eta uraren kontsumoa 100 m³-koa edo hortik gorakoa bada. Mankomunitateko langileek ezkutuko ur-ihesa egiaztatu ondotik zenbatetsiko da ordaindu beharreko tarifa, azken hiru urteetan hiruhileko berean izandako kontsumoak kontuan hartuta. Tarifa hori ez da

inolaz ere 100 m³-tik beherakoa izanen; hortik gorakoa bada, zenbatetsi egingen da.

Kontsumoa. 4.d) artikuluan aurreikusiak (egun ez da aplikatzen).

Kuota aldakorra: kontsumitutako metro kubikoaren prezioa (egun ez da aplikatzen).

4. Hargune zerbitzuaren kontratazioa (75). 4.e) artikuluan aurreikusiak.

KONTAGAILUAREN KALIBREA mm-tan.	ZENBATEKOA
25 mm arte	105,85 euro
30-80 mm	475,89 euro
100-250 mm	2968,44 euro

5. Hargune eskubideak. (76) 4.f) artikuluan aurreikusiak.

Hornidurako harguneeen eskubideak, suteei aurre egiteko. Harguneeen diametroaren arabera zehaztutako tarifak.

KONTAGAILUAREN KALIBREA mm-tan	ZENBATEKOA
80 mm arte	335,70 euro
100 mm	609,66 euro
150 mm	956,64 euro

Hornidurako harguneeen eskubideak, banan-banako jarduketetan. Harguneeen diametroa eta hornidura zertan erabiltzen den, horien arabera zehaztu dira tarifak.

	ETXEBIZITZAK B.O.E.	ETXEBIZITZAK P.T.E.	ETXEBIZITZAK B.P.E.	ETXEBIZITZAK LIBREAK	INDUSTRIAK, SALTO-KIAK ETA IGERILEKU PRIBATUAK	UDALAK UDAL INSTALAZIOAK	ERABILERA PUBLIKOKO UREZTATZE PRIBATUAK	UREZTATZE PRIBATUAK
1 "	97,97	108,84	119,72	211,33	211,33	65,30	65,30	609,51
1 1/4"	140,50	156,11	173,46	303,14	303,14	93,67	93,67	874,22
1 1/2"	363,94	404,37	449,29	785,17	785,17	242,61	242,61	2264,44
2 "	647,52	719,48	799,41	1397,03	1397,03	431,69	431,69	4029,05
2 1/2"	928,66	1146,49	2003,59	2003,59	2003,59	619,11	619,11	5778,34
3"	1984/07/12	1342,05	1491,15	2605,99	2605,99	805,23	805,23	7.515,47
4"	1774,24	1971,37	2190,40	3828,01	3828,01	1182,82	1182,82	11039,69

Saneamenduko harguneeen eskubideak, banan-banako jarduketetan. Harguneeen diametroa eta saneamendua zertan erabiltzen den, horien arabera zehaztu dira tarifak.

	ETXEBIZITZAK B.O.E.	ETXEBIZITZAK P.T.E.	ETXEBIZITZAK B.P.E.	ETXEBIZITZAK LIBREAK	INDUSTRIAK, SALTO-KIAK ETA IGERILEKU PRIBATUAK	UDALAK UDAL INSTALAZIOAK	ERABILERA PUBLIKOKO UREZTATZE PRIBATUAK	UREZTATZE PRIBATUAK
160 mm	97,97	108,84	120,92	211,33	211,33	65,30	65,30	609,51
200 mm	140,50	156,11	173,46	303,14	303,14	93,67	93,67	874,22
250 mm	197,85	219,84	244,26	426,88	426,88	131,90	131,90	1231,12

6. Aldi baterako hornidurak. 4.g) artikuluan aurreikusiak.

Tarifa hauetako 3. eta 4. puntuetan zehaztutakoari jarraikiko zaio.

7. Ikuskapena. 4.h) artikuluan aurreikusiak.

Ikuskapen bakoitzeko: 56,86 euro.

8. Mankomunitatearen baimenik gabe hornidura eten edo kanalizazioak hausten direnean egin beharreko jarduketan eta konponketan prezio publikoak. 8.1. Lanak egitearen kostua.

8.1.1. Langileen kostua.

Mankomunitateko enplegatuen lan ordutegi arrunta honakoa da: 07:40 - 15:00.

Mankomunitateko enplegatuen orduen kostua honakoa da:

	KOSTUA/ORDUA
Bulego Teknikoko buruaren ordua	34,29 euro
Teknikariaren ordua	27,58 euro
Arduradunaren ordua	36,14 euro
Taldeburuaren ordua	27,69 euro
1. mailako ofizialaren ordua	24,68 euro
Peoi espezialistaren ordua	18,04 euro

Konponketak lan ordutegi ohikotik kanpo egiten direnean, orduaren kostua bider ondoko koefizienteak egingen da:

	KOEFIZIENTEA
Laneguneko aparteko ordua	1,75
Gaueko aparteko ordua	2
Jaieguneko aparteko ordua (larunbatak, igandeak eta jaieg.)	2,25

8.1.2. Kilometrajea.

–Kilometroko 0,31 euro ordainduko da.

–Une horretan guardian den langilearen etxetik Mankomunitateak Arbizun duen biltegirainoko distantzia kobratzen da.

8.1.3. Fakturatu beharreko orduak.

Matxuraren berri izan eta kanalizazioa abian erabat jarri arte behar izan diren orduak fakturatuko dira. Ondokoak sartuko dira:

–Konponketa aurreko mozketak eta hustuketak egiteko behar den denbora. Konponketa egiteko erabili den denbora.

–Kanalizazio proba eta abian jartzea.

Lan ordutegi ohikotik kanpo, 3 ordu fakturatuko dira gutxienez, lan osoa denbora laburragoan egin bada ere.

8.2. Erabilitako materialen kostua.

Konponketan erabilitako materialak fakturatuko dira Mankomunitateak hornitzaileei ordaindutako prezioan, gehi %10 kudeaketa eta biltegiratze gastuengatik. 8.3. Mankomunitateak errentan hartu makineria eta langileen kostua.

Mankomunitateak berea ez duen makineria (atzerako hondeamakinak, kamioiak, hormigoi makinak, etab.) errentan hartu edo langile kualifikatuak (igeltseroak, iturginak, pala gidariak, kamioilariak etab.) zerbitzua egiteko deitu behar baditu, gastu horiek fakturatuko dira Mankomunitateak enpresa errentatzaileari ordaindutako zenbatekoaren arabera, gehi %10 aipatu ekipo edo pertsonak bilatu eta kontratatutako gastuengatik.

8.4. Ordainketak, ekipoak eskura edukitzeagatik eta zerbitzuari kalte egiteagatik

8.4.1. Ekipoak eskura edukitzea.

Zenbateko finko bat, 408,66 eurokoa, ordainduko da, lana berehala egin behar ezinezkoa delako hura programatzea, eta horrek dakar

ekipoei edozein unetan neurriak eman behar izatea, gorabehera berehala erantzuteko.

8.4.2. Zerbitzuari eragindako kalteak edo hondamenak.

Mankomunitateko zerbitzu teknikoek hondaketa sailkatuko dute, sortutako kaltearen tamainaren eta larritasunaren arabera (uraren galera, konpontzeko zailtasuna, ukitutako erabiltzaileak etab.):

	GORABEHERA	ZENBATEKOA (eurotan)
Ø 100 mm arte	Arina	169,49 euro
	Larria	451,99 euro
Ø 200 mm arte	Arina	338,52 euro
	Larria	677,98 euro
Ø 300 mm arte	Arina	508,47 euro
	Larria	1016,97 euro
Ø 400 mm arte	Arina	766,73 euro
	Larria	1533,41 euro
400 mm-tik goiti	Arina	4.236,98 euro
	Larria	8.473,98 euro

9. Mankomunitateak egiten dituen zerbitzuengatik bere udalei kobratu beharreko prezio publikoak.

9.1. Lanak egitearen kostua.

9.1.1. Langileen kostua.

8.1.1 atalean zehaztu den prezio berean fakturatuko dira, eta baldintza beretan.

9.1.2. Kilometrajea.

8.1.2 atalean zehaztu den prezio berean fakturatuko dira, eta baldintza beretan. 9.1.3. Fakturatu beharreko orduak.

Lana egiten erabilitako egiazko orduak fakturatuko dira, gehi ordu bat langile bakoitzeko, banaz bertze joan-etorriagatik Mankomunitatearen biltegitik.

Lana denbora laburragoan eginagatik ere, gutxienez ere hau fakturatuko da:

–Ohiko lanorduetan: ordu 1.

–Aparteko lanorduetan: 3 ordu.

Lanak osorik kobratuko dira arazoa ez konponduagatik ere (batez ere garbitzeko makinarekin edo ur-ihesak bilatzeko ekipoekin arituz gero).

–Garbitzeko makinaren kasuan, haren indarrez ezin bada buxadura libratu, Udalaren kontura izanen da garbitzeko baliabide azkarragoak kontratatzea.

–Ur-ihesak bilatzeko ekipoen kasuan, ur-ihesa nondik heldu den zehazterik lortzen ez bada, Udal bakoitzaren eskumena izanen da bestelako aukerak bilatzea. 9.2. Mankomunitatearen makineria eta ekipoak.

–Finkoa, irteeragatik: 48,22 euro.

–Garbitzeko makinaren lanagatik, orduko: 80,36 euro (prezioaren barnean sartzen da hura erabiltzeko behar diren langileen joan-etorria).

–Ur-ihesak bilatzeko ekipoen lanagatik, orduko: 21,04 euro (langileena kanpo).

Egin beharreko bestelako lanak: erabilitako makineria edo ekipoen arabera fakturatuko dira.

9.3. Mankomunitateak lana egiteko materialak eta makineria edo ekipoak errentan hartzea.

Lana egiteko Mankomunitateak ekarri behar dituen materialak 8.2 atalean esan diren baldintza beretan fakturatuko dira.

Lana egiteko Mankomunitateak errentan hartu behar dituen makineria edo ekipoak 8.3 atalean esan diren baldintza beretan fakturatuko dira.

L1400259

AMESKOAKO LIMITACIONES MENDIKO BATZARRA

2014ko aurrekontu orokor eta bakarra. Hasierako onespina

Ameskoako Limitaciones Mendiko Batzarrak, 2013ko abenduaren 19an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi du 2014ko aurrekontu orokor eta bakarra.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan xedatuari jarraikiz, onetsitako aurrekontua Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabost egun balioudunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek edo interesdunek espedienteaz aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Erreklamazioak aurkeztu ezean, aurrekontua behin betiko onetsiztat joko da, aurreko leheraldian aipatutako jendaurreko aldia iragan ondoren.

Zudairin, 2013ko abenduaren 19an.–Lehendakaria, Diego Arturo Urrea Velasco.

L1400412

IRATI HIRI HONDAKIN SOLIDOEN MANKOMUNITATEA

Plantilla organikoa 2013. Behin betiko onspena

Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatearen Batzarrak, 2013ko maiatzaren 16an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2013ko ekitaldiari dagokion plantilla organikoa. Iragarki hori 2013ko 112. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ekainaren 13an, eta jendaurrean egon bitartean inork ez du aurkeztu alegazio, kexa edo oharrik. Beraz, onspena behin betikoa bilakatu da eta plantilla argitara emanen da, gisa honetan:

–Idazkaria, zerbitzu eginkizunetan eta enplegurako eskubiderik gabe: Agoizko Udaleko idazkaria, A mailako soldataren %20 esleiturik.

–Lan-kontratadun finkoak: Administrari laguntzailea, lanaldi partziala, egunean 5 ordu. Taldea: D. Lanpostuko osagarria: %35,72 (%17,36 + %18,36, 19/2008 Foru Dekretuko %2,99ko osagarriarekin); antzintasun onartua 2000/09/12az geroztik.

–Lan-kontratadun finkoak (3): Lanpostu hutsak, gidariak lanaldi osoarekin. Taldea: D. Lanpostuko osagarria: %12,00 (%12,00 + 19/2008 Foru Dekretuko osagarria: %2,99), toxikotasuneko osagarria, %10.

–Gainerako aldi baterako lan-kontratadunak.

Agoitzen, 2013ko abenduaren 30ean.–Mankomunitateko burua, María Isabel Cañada Zorrilla.

L1400841